

## 1 EAQUALS

EAQUALS-ek, hizkuntzaren ikasketan dituzun beharrak betetzeko, kalitate handi eta trinkoko irizpide bat ziurtatzen du. EAQUALS-eko Estatutuan eta baita Kodean ere azaldutako guztia, hiru urtetik behin egiten diren ikuskapen zorrotzek egiaztatzen dute, eta EAQUALS-eko partaide izatea, eskola batek bermeak denak guztiz errespetatu direla frogatu dezakeenean bakarrik ziurtatzen da. Praktikan, EAQUALS kalitate zigilu bat da ingelesaren ikasketan, merkataritzan ISO eta Aenor diren bezala. EAQUALS-en ezagutzak, kalitatearekin dugun konpromisoan berrespen bat adierazi nahi du.


## 2 Ikastaroak

Lacunza-ihko helduentzat diren ikastaroak, gaur egungo ohizko ingelesean nola komunikatu zaitezkeen irakasteko pentsatuta daude. Gure ikasketa programan, komunikazioaren alderdi guztietan jartzen dugu arreta: mintzamina, entzumena eta idazmina.

Erabiltzen ditugun metodoak ingelesa arintasun handiz ikasi dezazun eginak daude, ingelesa ikasteko duzun ahalmena erabat areagotuz. Ikastaroan zehar jarduera mota ugarietan hartuko duzu parte, talde osoarekin lan eginez, edo binaka, edo talde txikitik edo bakarka. Ingelesa ikastea, atsegina eta dibertigarria izan dadila saiatzeko gara. Baina aldi berean, badakigu, hizkuntza bat ikasteak lan gogor bat eskatzen duela, bai zure eta baita gure aldetik ere. Zure ikasketan jarrera aktiboa edukiko duzula eta zure irakasle eta ikaskideekin, ingelesez hitz egiteko orduan, elkarlanean arituko zarela espero dugu. Honekin, lanerako giro adiskidetsu bat lortzen lagunduko duzu.

## 3 Zure aurrerapena

Eskoletara sarritan bazatoz, eskoletan biziki parte hartzen baduzu eta zure irakasleak bidalitako lan guztiak egiten badituzu, zure ikastaroan nabarmen aurreratuko duzu. Zure irakasleak eskolan egindako lanak kontuan edukiko ditu eta noizbehinka, aurrerapen test-ak egingo ditu - normalean hiru hilabete behin. Honekin lortu nahi duguna, zure ezaguerak aldezka erreparatzera anima zaitezten da eta bide batez, zure irakasleak zehatzago jakin dezan zure aurrerapen maila zein den. Test hauek eskolan ikasitako eta



Lacunza-ko mailen sistema, Europako Kontseiluarekin (hizkuntzaren ikasketarako, irakaskuntzarako eta ebaluaziorako europar erreferentzi Markua) bat dator. Honek, ikasleek hizkuntza bat ikasterakoan zuzenki komunikatzeko behar duten ezaguera eta gaitasunak zehazki deskribatzen ditu.

praktikatutako materialetan oinarrituak daude, eta ahalik eta hoberen erantzuten saiatu beharko duzu.

Hiruhileko bakoitza amaitzerakoan (abendua, martxoa eta ekaina), zure ahozko trebetasuna, egitura, hiztegia, etxeko lanen kalitatea, lan hauexen maiztasuna eta parte-hartzea neurtzen dituen ebaluaketa-txosten bat jasoko duzu. Maila behar bezala gaintzen baduzu, datorren 2007-08 ikasturtean hurrengo mailara pasa zaitezke. Aldiz, ez bazenuke maila gaintutako, beste ikasturte bat maila bera ikasten jarraitu dezakezu edo baliteke udarako intentsiboren bat behar izatea. Zure irakasleak eta zure Ikasketa Buruak, zure lana, parte-hartzea, etxeko lanak eta azterketaren garapena hausnartu ondoren, zuretzat pausorik egokiena zein den erabakiko dute.

## 4 Zure eskola eta ikasketei probetxurik handiena ateratzeko:

1. Eskolara beti puntu-puntu edo minutu batzuk lehenago etorri. Klasetarako prestatu zaitez, aurreko eskoletan ikasitakoa gogoratu. Ez ahaztu eskolara zure liburuak, koadernoak eta arkatza ekartzeaz.
2. Zure irakasle eta ikaskideei entzun, batez ere irakasle argibideak ematen edo ikasgaia azaltzen ari denean, edo beste ikasleek beraien kezkek azaltzen dituztenean. Ez baduzu zerbait ulertzen, irakasleari galdetu.
3. Klase bakoitzean egiten duzunaz eta ikasten eta praktikatzen ari zaren hizkuntza berriaz jabetu zaitez. Zure apunteak antolatzeko izenburuak erabili. Eskola bakoitza amaitzean galdetu zure buruari: gaur zer ikasi dut?
4. Eskolan emandakoa, etxean praktikatuz eta ikasi ezazu. Zerbait ez duzula ondo ulertu konturatzeko bazara, eskatu zure irakasleari argitzeko. Etxeko lanak, ikastaroaren alderdi oso garrantzitsuak dira eta serioki hartzen dituzten ikasleak azkarrago aurreratzen dute.
5. Ingelesaren ikasketan ahalik eta gehien sartu zaitez eta gogoratu praktikatzea ikastea dela. Ez izan lotsatia. Zure ideiak ingelesez adierazten saiatzeaz gozatu eta ez zaitez larritu ez baduzu lehenengoan zuzenki lortzen. Ezagutzen duzun ingelesa erabili, hauxe finkatu eta hobetzeko. Zure irakasleari errazagoa izango zaio laguntzea, zure akatsak zeintzuk diren eta zertan hobetu beharko zenukeen ikusteko aukera ematen badiotzu.
6. Hitz solteak ikasi beharrean, esaldi osoak ikasten ohitu zaitez. Hitz solteen zerrenda luzeak buruz ikastea ez da oso suspengarria, ezta oso eraginkorra ere. Askoz ere hobeto da, testuinguru baten barnean dauden eta esaldi oso bat osatzen duten hitzen esanahia ikastea. Adibidez, “angry” = haserre, “cheeky” = lotsagabe ikasi beharrean, ikasi (eta idatzi): I get angry when people are cheeky.
7. Zure hizkuntza berria pertsonalizatu. Testuinguru pertsonal batetan pentsatu (zure lagunak, lantokia edo ikasketak, bizi zaren ingurunea) eta pertsona edo egoera hauei buruz, zeure adibideak edo esaldiak osatu. Hau egiterakoan, ingelesez pentsatzen arituko zara!
8. Maiz erreparatu. Ikasitakoa erreparatzeko ez da beti beharrezkoa denbora libreko epe luze bat edukitzea. Batzuetan, hamar edo hamabost minutuekin nahikoa izaten da. Ikasteko formula on bat badago: “pixka bat eta sarritan”
9. Ingelesarekin ahalik eta harreman gehiena izan. Liburuak eta aldizkariak irakurtzeko edo filmak eta musika ingelesez entzuteak, asko lagunduko dizute hobetzen. Eskatu bulegoan liburuen eta filmeen mailegua eta gogoratu: ingelesez zenbat eta gehiago irakurri, are gehiago aurreratuko duzu.
10. Ingelesa ikastea lehentasun batetan bihurtu. Erreparatzeko eta etxeko lanak egiteko ordutegi bat ezarri eta bete ezazu.

## 5 Arazo, azalpen eta iradokizunak

Arazo administratiboren bat edukiko bazenu, esaiozu edozein idazkariri edo joan zuzenean Ikasketa Zuzendariarengana.

Zure eskolarekin arazoren bat edukiko bazenu, zure irakaslea da arazo horri buruz hitz egiteko pertsonarik aproposena, eta poz-pozik egongo da zurekin hitz egiteaz. Klaseko arazo zehatzentzat, posible da bakarkako tutoretza bat antolatzea klaseko orduetatik kanpo. Zure kezka orokorragoa bada edo hala nahiago baduzu, zuzenean Ikasketa Zuzendariarengana joan zaitezke edo bulegoan hitzordu bat eskatu dezakezu.

Akademiari buruz egin nahi diguzun edozein azalpen entzuteko gogotsu gaude. Beraz, arren, ez izan zalantzarik esan nahi diguzuna esateko. Akademiari buruz egin nahi diguzun edozein iradokizun uzteko, iradokizun-kaxa bat aurkituko duzu zentro bakoitzaren bulegoan.

## 6 Akademiako arauak

Akademian, hizkuntza bat ikasteko biltzen diren pertsonen artean giro egokia lortzeko, komenigarriak diren oinarritzko arau minimo batzuk daude.

Arau garrantzitsuenak, bertako langileak eta beste ikasleak errespetatzea da. Hau da:

1. Eskolara sartzean edo bertatik irtetean isilik ibili, klase guztien hasierako eta bukaerako orduak ez baitira beti berdinak.
2. Akademia garbirik edukitzen lagundu, paperontziak erabiliz eta okertasunik somatuz gero, idazkariren bati edo Ikasketa Zuzendariari esanez.
3. Eskolako hizkuntza bezala ingelesa erabili. Gure ikasleek praktikatzeko dituzten aukerak ahalik eta gehien aprobetxatu ditzaten nahi dugu.
4. Akademian erretzea debekaturik dago.
5. Eskolan ezin da jan edo edan.

## 7 Zure irakaslea eta eskolak

Zure irakaslea ez dagoenean, eskola beste irakasle batek emango du. Hala eta guztiz ere, akademiarekin harremanetan jarri ezin duelako edo, irakaslea berandu iristea edo ez agertzea suertatu daiteke. Eskola hasi eta bost minututan irakaslea ez bada agertzen, mesedez, esaiozu idazkariren bati edo Ikasketa Zuzendariari.

## 8 Norekin jarri harremanetan

Zure eskolari buruzko gairen batez edo orokorrean zure ingeleseko ikastaroari buruz hitz egin nahi baduzu, zentroko Ikasketa Zuzendaria atsegin handiz jarriko da harremanetan zurekin. Beheko taulan aurkituko dituzu beraien izenak (Tel: 902 012 912):

Ikastetxea	Ikasketa Zuzendaria
Urbietza, 14	Jim Rudy
Buen Pastor, 8 (arratsalde)	Dave Green
Moraza, 5	Della Mitchener
Amara (Eustasio Amilibia)	Michele Bogaard
Antiguo (Benta Berri)	Brigit Clunies
Gros (Secundino Esnaola)	Julie Simmons
IRUN (Jose Ramon Aguirretxe)	Phil Hughes



# Adult Learner Guide

